

**Prest!** KINKA LARRIAN! 📢 Info+ 31. or

**Prest!**




BERBETAN: **MAITE SARASOLA ISAZELAIA** BERTSOLARIA

ERREPORTAJEA: **JUAN AJURIAGERRA** BARKUA: **IBARREKOLANDA "BETI PREST"**

198-199-200-201-202-203



## Gure babesleak



# Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak .....
- Helbidea .....
- Telefonoa .....
- E-posta .....
- Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com  
94 447 10 42

Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

	Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia - Nerea Etxaniz Osa		<b>Iritzia</b>	<b>4</b>
	Sarah Fdez Deutsch		<b>Gurera etorria</b>	<b>5</b>
<b>e</b>	<b>erreportajea</b> Juan Ajuriagerra			<b>6</b>
	<i>Juan Ajuriagerra kalea Abandon dagoen arren, berdin-berdin egon zitekeen gurean, buruzagi jeltzalea bertokoa zelako. Kaleaz gain, agian bere izena ez da oso ezaguna izango, beraz, ondo datorrigu Eugenio Ibarzabal kazetari donostiarrak berriki plazaratutako biografia "anaia nagusia" gogoratzeko.</i>			
	San Inazioko jaiak		<b>Jaiak</b>	<b>10</b>
	Francesc Macià eta Espainiako Armada aurrez aurre Deustuan (I)		<b>Behin batean</b>	<b>12</b>
	Deustuko kirola osasuntsu		<b>Artikulua</b>	<b>14</b>
<b>b</b>	<b>berbetan</b> MAITE SARASOLA ISAZELAIAREKIN			<b>16</b>
	<i>Bizkaiko eskolarteko bertsolari txapelduna da Maite Sarasola (Deustu 2001), maiatzaren 25az geroztik. Juan Mari Areitio bertsolariak eman zion txapela Abadiñon izandako finalean. Jantzi duen lehen deustuarra omen da, eta agian bilbotarra ere bai.</i>			
	Done Petri plaza		<b>Irudiak berbetan</b>	<b>21</b>
	<b>ATHLETIC</b> Koldo Agirre, izar berri bat zurigorrien zeruan			<b>24</b>
	<b>IBARREKOLANDA</b> "Beti prest"			
	<b>PINTXODROMOA</b> Panpa Bar			
	<b>KULTUR TXOTX</b> Laura Freijo eta Asier Urkiza Sanchez			



**barkua  
bete  
herba**

# Prest!

**Argitaratzailea:**  
BLB Komunikazioa Koop. Elk.  
Tel: 94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42  
Deustu 48014  
bilbokoaldizkariak@gmail.com

**Zuzendaria:** Jone Gartzia Gerra  
**Erredakzioa:** Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Asier Robles, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Mikel Aiartzaguena, Nerea Etxaniz, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Maialen Gago, Jon Intxaurraga  
**Kolaboratzaileak:** Elorri Bertso-Eskola, Deustu eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea  
**Argazkiak:** Iñigo Azkona Bikandi  
**Publizitatea:** Jone Gartzia Gerra  
**Diseinua:** BOST  
**Maketazioa:** Amaia Gil Basterretxea  
**Inprimategia:** Antza  
**Ale kopurua:** 2.800  
**Lege Gordailua:** BI-571-01  
**ISSN:** 1577 - 9017



**Mikel Aiertzaguenaga Agirrebeitia**  
Gazte mugimenduko kidea

## *Itxi!*

Azkenaldian iritziak ipuinekin hasteko ohitura hartu dut. Badute ipuinek zer esana, bai. Badute hasiera, korapilo eta bukaera. PREST!en iritzigile gisa bizi dudan ipuin hau ere bere bukaerara iritsiko da azken iritzi honekin. Ez nuke, baina, ipuin hau ipuin batekin bukatzerik nahi.

Ni iritzigile, zu irakurle. Oroitu zaitetz: tratu bat egin genuen ikasturte hasieran. Idazle eta irakurlearen arteko tratua, gizakiok idazkera asmatu genuen momentuan bertan ezarritako tratua. Eskatu nizuen, exijitu nizuen, irakurri zenezatela hitzen esanahiari behin beldurra galduta; irakurri zenezatela barrutik, hitzen artean bilatzeari ekinez, hitzen artean ikusi nahirik. Irakurtzen duenak baduelako erantzukizuna, noski. Gure sakonean, ingurukoaren sakonean, ez dugulako soilik gai transzendentaleez hitz egiten dugunean begiratu behar. Gai oro berdintzen duelako emozioak, gai

errazena ulertzeak eraman gaitzakeelako korapilorik zailena askatzeraz.

Eta eskaini nizuen nire nia. Zin egin nizuen ni ere biluzteraz nentorrela. Gai bat hartu eta ez nuela bere horretan utziko. Azken finean, ez naizelako inor, berez, ez dudalako ezer egin zuek nire iritziaz irakurri dezazuen. Neuronak martxan jartzea baino ezin nizuen eskaini. Eta hori egin dut.

Azken iritziaz dugu hau. Berriz ere idazten hasi eta joan zait espazioa. Itxiera testu bat izan behar zuen honek eta horregatik bere horretan mantendu dut izenburua. Bartzuetan, baina, hobe da bide bat guztiz ez ixtea, beste bat hartuta ere aurrekoa begi-bistatik guztiz ez galtzea. Beraz, bukatu dezagun aurtengoa, ezer ere ez itxi gabe, PREST! zuen etxeetan beti zabalik egon dadin.



**Nerea Etxaniz Osa**  
Petriletik

## *Atzena!*

Komuneko atean *Maite zaitudalako sortzen dut* irakurri dut beste behin, eta burura gorrotoa ere inspirazio-iturri agortezina dela etorri zait, eta zenbat ote duen gorrototik eta zenbat maitasunetik biziminak edo *saudadeak*...

Oraintxe omen da, ordea, ohiko kontu eta penak atzean utzi, barrutik hustu eta nork bere joerei segitzeko garaia, zoratzeko, dena emateko sasoa. Erne, beraz, mundu puta honetako putakumeok, zeren zain zaudete? Hustu dituzue etxeak eta bulegoak, ezta? Kontuz, dena dela. Ihes hutsa sendabide eskasa duzue, ajeak maletetan eramango baitituzue fakturatu beharrik gabe. Ametsak azpikontratatzetik ez dago.

Bidaiak askatzailea beharko luke izan nolabait. Urte osoan egunerokoak elbarrituta bizi izan zarete, arrastaka. Erresuminak erraiak usteldu eta ilusioak herdoildu dizki-

zue. Baina, jakizue Infinitua zeuengan datzala, eztanda noiz egingo. Agian zuen iparrak eta hegoak topatuko dituzue ustekabean, estaldura eta wiffirik gabeko eremuetan barna. Lagunarekin gustura, hitza zilar eta isiltasuna urre, senak aginduko du eta indartsuak izango zarete, garaiezin. Hori guztia ahaztuta zenuten ia.

Inor ez omen da perfektua baina zenbaitetan oso hurre izaten dugu perfekzioa. Udako gau epeletan, goian zerua eta oinak ondo lurtean, bestelako dimentsioa har dezake unibertsoak; arrazoiak ez du estropezurik egiten eta denak argiago dirudi: Plutonon sateliteak izan gaitzeko, kontzientzia hutsa.

Azkena eta etxera; espuela, benetako azkena, atzena eta bagoaz... Bai, hauxe da despedidea. Bizi bizi eta izan satelite; edozein petriletan elkartuko gara.





## Sarah Fdez Deutsch

**Jatorria:** Madril

**Bizitokia:** Erribera

**Lanbidea:** Etxebizitza- eta hiri-eskubideak



# “Espazio pribatua publikoa baino askoz askeagoa da”

*Duela hiru urte etorri zen Sarah, Madriletik zuzenean Erriberara. Azken urteotan auzoak jasandako aldaketak zelan bizi dituen kontatu digu, Erriberako petrilean irribarretsu eserita.*

### **Nolakoak izan ziren lehenengo egunak hemen?**

Lehenengo eguneko paseoa itzela izan zen. Nire buruari galdetzen nion: “Non nago, Detroiten?”. Oso zorte ona izan dut, heldu behar nuen tokira heldu nintzen.

**Testua**  
Prest!

### **Zertan egiten duzu lan?**

Hiritarren eskubideak, espazio publikoa edota etxebizitza eskuragarria bezalako proiektuetan aritzen naiz. 2012tik orain arte Madrileko San Cristobal auzoan espazio publikoaren erabilera askearen aldeko proiektu batean ibili naiz, Autobarrios izenekoa. Paradoxa ematen du, baina espazio pribatua publikoa baino askoz askeagoa da.

### **Zein proiekturi helduko diozu orain?**

Ikerketa proiektu bat abiatu nahi dut, etxebizitza higiezi-merkatutik eta espekulaziotik ateratzeko bideak aztertzeke. Bartzelonan, Madril

eta Donostian auzokideek berrondatez sortutako kooperatibak daude eta etxebizitzaren erabiltzeko eskubidea lagatzen dute. Ez da jabetza edo alokairua, erabilerak ematen dizu bertan bizitzeko aukera.

### **Zer deritzozu Zorrotzaurreko planari?**

Etsigarria da espazio publikoa ukatzen dizutela ikustea. Oso gogorra da auzo proiektuaren aurka egotea eta ez jakitea zelan aurre egin. Zorrotzaurreko proiektuak dena suntsitzen du, ingurua kontuan hartu gabe. Zentzugabekeria galanta da.

### **Zelako auzoa da Erribera?**

Eskema guztiak apurtu dizkit, ez dituelako komunitatea sortzeko beharrezkoak zirela uste nituen elementuak, esaterako, komertzioak. Hemen ez dago ezer, eta, aldi berean, ez dut inoiz ezagutu hain sare indartsua duen auzorik. Gatazkak jendea batu du, auzotarrek eman behar izan diotelako auzoari behar zuen guztia. BiziNahi auzo-guneak asko lagundu du horren alde egiten.

### **Eta Bilbo?**

Hiriaren tamaina eta mu-

gikortasuna gustatzen zaizkit, baina turistifikazioa eta gentrifikazioa ez. Parke tematiko bat ematen du, beharrezkoak ez diren komertzioz beteta. Espazio publikoa guztiz hartuta eta programatuta dago instituzioen aldetik.

### **Luzerako geratuko zara hemen?**

Erriberak Erribera izaten jarraitzen duen bitartean, bai. Asko kostatzen zait nire burua beste toki batean irudikatzea. Azentua eta guzti daukat!

### **Euskara ikasten ari zara?**

Bai, Euskal Herriaren zati garrantzitsu bat galduko nuke elako euskara jakin gabe. Gainera, gerora deskubritu dut oso hizkuntza zirrargarria dela, eta agian Bilbon ez, baina Erriberan bizitzeko bada beharrezkoa.

### **Ecuador Etxeak Berbaizurekin ematen duen euskara ikastaroan zaude.**

Astean ordu eta erdi baino ez ditugu ematen, nahi baino gutxiago. Baina euskaltegiak beldurra ematen dit, denbora asko eskatzen duelako eta akaso akademikoegia delako. Nik kalean erabiltzeko ikasi nahi dut euskara.



Ajuriagerra mitina ematen Karrantzan. Argazkia: Miguel Sabino Díaz.


## JUAN AJURIAGERRA, BELAUNALDI BATEN ANAIA NAGUSIA

Testua: Jon Intxaurreaga

*Juan Ajuriagerra kalea Abandon dagoen arren, berdin-berdin egon zitekeen gurean, buruzagi jeltzalea bertokoa zelako. Kaleaz gain, agian bere izena ez da oso ezaguna, eta beraz, Eugenio Ibarzabal kazetari donostiarrak berriki plazaratutako biografia ondo datorrigu “anaia nagusia” gogoratzeko.*

Ajuriagerra Deustuko Unibertsitatetik hur zegoen txalet batean jaio zen 1903an, familia otxandiar batean. Ibarzabalen ustez, handik gutxira Bilbora mugitu ziren, nolahi ere, Deustuko Batzokian hasi zen politikan. Orduan, Babcock & Wilcoxon zebilen ingeniari, 1935ean Bizkai Buru Batzarreko lehendakaria izendatu zuten arte. Gogoz kontra onartu zuen kargua eta horri esker Uri Batzarretako jendea ezagutu zuen, gero, gerran, gudariak errekrutatzeke ondo etorri zitzaiona. Bada, Ibarzabalek azpimarratzen duenez, Ajuriagerrak ez zuen sekula Eusko Jaurilaritzan parte hartu.

Garai gatazkatsuak ziren haiak eta 1936an Gerra Zibilak eztanda egin zuen militarren altxamenduagatik. Ibarzabalen berbetan, Ajuriagerra Iruñera joatekoa zen uztailaren 18an, baina ez zen ausartu, jakin bazekielako altxamendua martxan zegoela. Deustuarrak eragina izan zuen EAJ Errepublikaren alde borrokatzeke erabakian. Kazetariak dioenez, “EBBk kaleratzen duen oharrean argi dago Ajuriagerraren konpromisoa”. Haren hitzetan, deustuarra ez zen batere monarkikoa eta Errepublikaren alde zegoen, errepublikanoa ez izan arren, Irujo izan zen bezala.



**“Iparraldean lasai gera zitekeen, borrokan, baina erabaki zuen gudarien ondora bueltatzea, bere bizitza arriskuan zegoela jakin arren”**


Horren ondorioz, Eusko Gudarostea sortzeko urratsak egin ziren eta, Ibarzabalen iritziz, Ajuriagerrak hiru zeregin handi izan zituen. Batetik, Bizkaiko Uri Batzar guztiekin harremanetan zegoenez, gudariak errekrutatzeko eta gudarostea sortzeko garrantzia izan zuen deustuarrak. Bestetik, armak lortzeko saiakerekin zerikusi handia izan zuen zeharka, zenbaiti armak ekartzeko eskatzen ibili omen zelako. Hirugarrenik, inteligentzia lanetan buru belarri aritu zen, informazioa zelan jaso eta zelan eman Eusko Jaurlaritzari, hain zuzen. Horietan ez ezik, Ibarzabalek susmoa du Bilboko ebakuazioan ere beharrean aritu zela. Bitxikeria moduan, berak idatzi zuen gaur egun Lehendakariak zin egiten zuen formula. Egileak honen berri izan zuen, deustuarrari eskapatu zitzaizkion elkarriketatzen ari zenean.

#### **Santoñako ituna eta heriotza-zigorra**

Frankistek Bilbo konkistatu ondoren, 1937ko ekainaren 19an, Ajuriagerrak Gudarostearen ardura hartu zuen eta handik gutxira gertatu zen ospea eman zio-

na: Santoñako Ituna. Errepublikanoekin konponbide bila ibili zen Agirre buru zuen Jaurlaritzari, baina ez zenez heldu, Euzko Gudarosteak Italia faxistako militarrekin errendizioa hitzartu zuen Kantabriako herrian. Ibarzabalen ustez, deustuarra “oso bakarrik” egon zen erabakiak hartzerakoan eta ituna bere ardura osoa izan zen.

Buruzagi jeltzalea Miarritzen zegoen akordioa indarrean jarri zenean eta, ikusita ituna ez zela betetzen ari, hegazkin bat hartu eta Santoñako hondartzan agertu zen. Kazetariaren iritziz, handik zetorkion jendearen errespetua, inork ez omen zuelako horrelakorik egin. “Iparraldean lasai gera zitekeen, borrokan, baina erabaki zuen gudarien ondora bueltatzea, bere bizitza arriskuan zegoela jakin arren, bera izan baitzen ituna izenpetu zuena”, dio Ibarzabalek. Bera ez ezik, EAJko beste buruzagi batzuk ere, tartean Artetxe, Rezola edo Azkue, borrokalarien ondoan geratu ziren. “Zozketa bat egon zen; batzuk geratu eta besteek alde egin behar zuten”, argitzen du egileak.



Donostiarraren hitzetan, “beste alderdiek hori egin ez izanak eman zion autoritatea, bai alderdiaren barnean, bai kartzelan beste alderdien aurrean”. Santoñara itzultzea erabaki zuenean ez zuen inolako zalantzarik izan, ez zuen atzera egin. Horrek eman omen zion lasaitasuna erabakiak hartzerako orduan, bera koherentea izan zela-eta, besteek ezin ziotelako ezetzirik esan.

Santoñako ituna apurtu ondoren, El Due-soko kartzelan sartu zituzten gudariak. Heriotza-zigorrak eta fusilamenduak tarteko, eman zituzten urte batzuk. Kanpoan bezala, Ajuriagerra inteligentzia lanetan aritu zen eta Alava sarean funtsezkoa izan zen. Jose María Lasarte diputatu jeltzalearen eskariz, informazio sarea eratu zuten lau emakumeek: Bittori Etxeberriak, Itziar Mu-



jikak, Delia Laurobak eta Tere Verdese. Horren bidez, Parisetik (Eusko Jaurlaritza bertan zegoen), Baionara (EBB zegoen lekua) El Dueson (buruzagi presoak zeuden kartzela) barrena informazio ugari pasatu zen eta heriotza-zigorrek kentzeko eta indultuak lortzeko ahaleginak egin ziren, eta lortu ere. 1940an Gestapok sarearen agiriak aurkitu zituen Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, Parisen, eta Espainiari helarazi zizkion. Horren ondorioz, lau emakumeak kartzelatu eta Alava fusilatu egin zuen Estatu frankistak.

### **Kartzelaren ostean, klandestinitatea**

Heriotza-zigorra kendu ondoren, deustuarra kartzelatik irten zen 1943an eta EAJ berrantolatzeari ekin zion. Ibarzabalek dioenez, bere lorpen handia organizazioa mantentzea izan zen: “Jendea ez galdu, bere militanteekin kontaktuak egon”. II. Mundu Gerra amaitu berria zen eta Alia-tuak Espainian sartu zirelako ustea zegoen. Liburuaren egilearen iritziz, Ajuriagerrak beti pentsatu zuen aliatuen bidez konponbidea etorriko zela eta Estatu Batuekin harreman estua izan zuen. Konturatu zenean harremanak ez zuela aterramendurik ekarriko, etetea erabaki zuen.

Kristau-Demokrazia ere baliatu zuen presioa egiteko eta Francoren diktadura salatzen zuen bertan, Espainia frankista Europan integartzeko bidea zaildu guran. Era berean, deustuarra oso kritiko agertu zen indarkeriaren erabilerarekin aterabide onik ez zuelako. Hori dela-eta, harreman liskartsua izan zuen Julen Madariaga eta Txillardegirekin. Idazlearen iritziz, Ekin eta

EAJren haustura belaunaldien arteko bostere-borrokak ekarri zuen. EKINekoak oso kritikoak ziren EAJren jardunarekin eta borroka molde berriak plantatu zituzten, besteak beste, biolentziaren erabilera. Handik gutxira jaio zen ETA.

1975ko azaroaren 20an Franco hil ostean, Espainiak estatu demokratikoa bihurtzeko trantsizioa hasi zuen. Handik hiru urtera, 1978ko abenduaren 6an, konstituzio berria bozkatu behar zen. EAJn hainbat korrante egon ziren eta, egilearen aburuz, Ajuriagerraren iritzia eragin zuen alderdiak galdeketa abstentzioa eskatzea. Deustuarra ez zen baiezkoa ematearen aldekoa, baina argi zeukan ezin zela eze-tza eman, hortaz, abstentzioari erdibideko konponbidea zeritzon. Garai hartan elkarriketatu zuen Ibarzabalek, deustuarra oso gaixorik zegoela, eta ez zuen bate-re ezkor ikusi. “Azken momentura arte pentsatzen zuena esan zuen”, eransten du. Handik gutxira, abuztuaren 25ean, hil zen Aiegin. Data gogorazteko Deustuko Uri Batzarrak bere aldeko meza egiten du urtero Done Petrin.

Gizon benetan zaila izan omen zen Juan Ajuriagerra, baina autoritatea lortu zuen bere ereduagatik. Izan ere, idazleak planteatzen duen modura, liderra da jendea bere atzetik eramateko gai dena. Normalean, karisma dutenak edo hizlari finak izaten dira, baina gutxiagotan jarreragatik eredu direnak. Horietako bat izan omen zen Juan de Ajuriagerra, anaia nagusiari, eredu izateagatik, inork ezin ziolako eze-tzik esan.

**“Abuztuaren 25ean hil zen Aiegin. Data gogorazteko Deustuko Uri Batzarrak bere aldeko meza egiten du urtero Done Petrin.”**



**uztailean eta abuztuan  
asteleheneetik ostiralera  
08:00 - 15:00**

**hileko bigarren larunbatetan zabalik  
10:00 - 14:00**

**ZATOK  
BISITAN**

Euskararen Etxea  
Agotitz plaza 1, Bilbo  
Metroa: San Ignazio  
(Lekettio irteera)

# SAN INAZIOKO JAIK, BESTE BEHIN ERE AUZOTARRON LANARI ESKER!

*Uztailaren 24tik 31ra jaiak helduko dira San Inaziora. Urte hasieran, Jai Batzordeak ezagutzera eman zuen jaiak arrisku egoeran zeudela eta, kartelen bidez, ohartarazi zuen inauteriak ez zirela ospatuko jendearen partehartzeko faltagatik. Abisuaren ostean, auzotarrek asanblada irekian parte-hartzeko deialdia jaso zuten eta, azkenean, inauteriak antolatu ziren.*

**Testua:** San Inazioko  
Jai Batzordea

Arreta-deitzea ariketa arrakastatsua suertatu zen eta horri esker Saniko jaiak antolatuko dira. Berrikuntzak dakartzate aurten eta beste era batera ospatuko ditugu festak. Lehengoa, konpartsa bat gutxiago izango dugu, Txori Barrote desagertu delako belaunaldi errelebo faltagatik.

Jai-gunearen kokapena ere ezberdina izango da. Bilboko Udalak obrak egin ditu Le-bante enparantzan eta armiarma formako aterpe bat jarri du plaza erdian. Kontrako

kritikak egon dira, Udalak lanak auzotarren iritzia kontuan hartu gabe aurrera eraman zituelako. Gainera, aterpeak ez omen ditu jatorrizko funtzioak bete, euria egiten duenean edota bero egiten duenean ez delako babeslekua.

Kritikak kritika, armiarmak jai-gunea birmoldatzea ekarri du eta Jai Batzordeko bileretan gai garrantzitsua izan da. Horren ondorioz, txosnen eta karparen kokapena birpentsatu da. Hasieran, Jai Batzordeak



Udalari eszenatokiaren kokapen berria bidali zion, baina honek ez zuen erantzun. Azkenean, auzoko ekintzaileen ideiei esker lortu da txosnak eta eszenatokia plazan sartzea, non-eta obra berriak utzi duen espazioan. Beste berrikuntza bat, aurten ez da karparik egongo eta, aspaldiko partez, “kaseta” itxurako txosnak egongo dira jai-gunean.

### **Aldaketak aldaketa, jarduera ugari egitarauan**

Urtero moduan jarduera beteko egitaraua prestatu du Jai Batzordeak eta jai-giroari eutsiko diote auzotarren alerari esker. Aurten ere Sani Fest koadrilak botako du txupina, izako koadrila irabazleak. Uztailaren 24an 20:00etan izango da hasiera emateko hitzordua.

Ezingo genituzte jarduera guztiak artikulatu bakarrean aipatu: koadrilen lehiaketak, gastronomikoak, kontzertuak... Arestian aipatu dugu konpartsa bat desagertu dela, baina, dena ez da galera, ospatu beharra dagoelako Txepetx Astialdi Taldea berpiztu dela. Ume izan zirenek taldea berreskuratzeko ardura hartu dute eta jaietan umeentzako jolasak prestatuko dituzte hilaren 30ean.

Lehen azpimarratu bezala, jaiak auzolanean antolatzen dira eta horren emaitza da Sani Rock musika ekimena. Uztailaren 25ean ospatuko da aurten Lebante plazan eta 18:00etatik aurrera Downtoun Brigadek, Chakkak, Detroitek eta Ugerrek San Inazio girotuko dute.

Gauetz ere entzungo da musika bertan eta, jai-egunak aprobetxatuz, lau gauetan parranda egiteko aukera egongo da. 24an, asteazken eta jai-egun bezpera, Raust! eta The Cherry Boopers arituko dira. Ostiralean, Gazte Eguna ospatuko da San Inazioko Gazte Asanbladak antolatuta. Gauean Radio Revolución, Kenna I eta Txami Records arduratuko dira plaza musikaz betetzeaz. Egunean zehar, Fritanga elektrotzarangak bazkalostea alaituko du. Larunbatean, Lehiotikan eta Skabidean & The Black Birds



taldeek joko dute eta 30ean, San Inazio bezperan, Mugalari erromeriak eta auzoko DJ Kastak jaien azken notak jarriko dituzte.

### **Erasoen kontrako protokoloa eguneratuta**

Bilobak talde feministak erasoen kontrako protokoloa eguneratu du. Jai giro osasuntsua sustatu nahian, gogorarazi dute San Inaziok ez duela onartzen inolako eraso sexistarik, arrazistarik ezta homofoborik ere. Beraz, zuk ere ondo pasatu nahi baduzu era sano batean, badakizu nora etorri!

### **GORA SAN INAZIOKO JAI HERRIKOI ETA PAREKIDEAK!**





# FRANCESC MACIÀ ETA ESPAINIAKO ARMADA AURREZ AURRE DEUSTUAN (I)

*Gazteenetako askok ez dute jakingo Agirre  
Lehendakariaren etorbidea urte askotan  
Avenida del Ejército izan zela. Eta oso  
jende gutxik jakingo du Espainiako  
Armadarena baino lehen, hura Francesc  
Macià Kataluniako lehendakariaren  
etorbidea izan zela.*

**Testua:** Hektor Ortega

Egiari zor, ez da zehatz-mehatza goiko esaldi hori. Azaldu dezagun zergatik. Bilbok Deustua bereganatu eta urte pare bat geroago (1927) elizate zaharra urbanizatzeko plangintza osatu zuen. Plan horretan etorbide nagusiari Avenida Tres deitu zioten, Bilboko Udalak benetakako izena eman bitartean. Erabaki hori urte batzuk geroago hartu zuen, 1934ko uztailean. Zazpi hilabete lehenago hildako Francesc Macià (1859-1933) Kataluniako Generalitateko lehendakariaren izena jarri zion. Abuztuaren 12a izendatu zuten eki-



**Ezk:** Ernesto Erkoreka, poliziak alkatetzatik kendu eta gero, Udaletxetik ateratzen. **Esk:** Macià


taldi publikoa egiteko eguna eta bertara agerzera gonbidatu zituzten hala Maciàren senitartekoak nola Kataluniako gobernuo kideak.

Erabakia hartu, hartu zuen, Bilboko Udalak. Kontua da ez zela gauzatu. Uda gori-gori zertorren. Errepublikaren gobernuan eskuinak agintzen zuen eta atzerakada nabarmena eragiten ari zen hainbat arlotan. Ezkerra matxinadarako prestatzen ari zen (1934ko urriko greba iraultzailea) eta Hego Euskal Herriko udal askok autonomiaren defentsan jokatzeko gogoazaldu zuten “Ardoaren Gerra” deitu

zutenaren ondorioz. Espainiako Gorteek ardoari ezarritako zerga kendu zuten, euskal udalen diru iturri garrantzitsua izan arren.

Protesta hartan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako udalek Diputazioak aukeratzea erabaki zuten (artean deseginda zeuden). Bozketak lekuan lekuko udaletxetan egin behar zituzten





La lápida a la memoria de don Francisco Maciá, en la avenida que ostentará ese nombre, preparada para ser descubierta, ceremonia que no pudo celebrarse, ayer.

etorbideko plakak, zabaldu barik gelditu ziren.  
Behean: Guardiak Bilboko Udaletxera sartzen.

herrietako kargudunek, noiz eta abuztuaren 12an, Deustuko etorbide berrian Maciáren izendun plakak zabaldu behar zituzten egunean bertan, alegia. Zer gertatu zen? Abuztuaren 10ean Bizkaiko gobernadore zibilak, Angel Velardek alegia, Bilboko Udalak egin behar zituen bozketak galarazi zituen eta, harekin lotuta, baita Deustuko kale berriaren bataio ekitaldia ere. “Egun batean izanik ekitaldi biak, ordena publikorako oso arriskutsua izan liteke”, argudiatu zuen. Artean Bilbon ziren Kataluniatik etorritako kargudunak eta Maciáren alaba heltzekotan zegoen.

Abuztuaren 12a iritsi zen eta etorbidean ez zituzten plaka berriak zabaldu. Udaletxean,

Apariciok, Brigada Sozialeko poliziaburuak, kargutik kendu zituen Ernesto Erkoreka alkatea eta haren ostean udal bilkura osoa ireki nahi izan zuten alkateordeak, eraikina hustu-arazi aurretik. Hor amaitu zen Bilboko Udala. Gainerako zinegotziek dimisioa eman zuten, udal agintarien aurkako jazarpen hura salatzeke. Hurrengo hilabetean gestora bat izendatu zuen gobernadore zibilak, Pablo Barrera buru eta eskuindar espainolistez osatuta. Erkoreka eta gainerako zinegotziak -EAJ, EAE, errepublikazaleak eta PSOEkoak- espetxeratu eta, sedizioaz -bai, sedizioa, ez da asmakizun berria- salatuta, Burgosen epaitu zituzten azaroaren 26an. Zortzi urteko kartzela zigorra eskatu zuten eurentzat baina azkenean espetxealdia ezarri barik, alkatea eta alkateordeak zortzi urterako kargugabetu zituzten.

### Armadaren etorbidea

1934ko irailetik 1936ko udaberrira arte iraun zuen Bilboko Udalaren buru gestora antide-mokratiko hark. 1935eko otsailaren 13an bilkura osoa egin zuen. Kazetariak igarri zuten askoz ere babes polizial handiagoa zegoela udaletxean normalean baino. Zerrendan ondoko proposamen hau zegoen: Deustuko Avenida Tercerari Avenida del Ejército izena ematea. Esteban Calle Iturrinok defendatu zuen proposamena eta lehenengo-lehenengo Angel Velarde gobernadore zibilari eman zizkion eskerrak, bere debekuari esker ez baitzen gauzatu Francesc Macià izenarekin bataiatzeko akordioa. Legitimitaterik gabeko Bilboko Udal hark eman zion etorbidea Espainiako Armadari. Ez luzerako ordea... [jarraituko du]



**Kalderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.kalderapeko.com](http://www.kalderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99



# DEUSTUKO KIROLA OSASUNTSU

*Uda garaia da eta urtero legez kirol sasoi betean gaude.  
Batzuek amaitu berri, besteek hasi besterik ez, baina denek  
ala denek bildu dituzte hamaika lorpen poltsikoan.*

Ekaineko aldizkarian eman zigun Deustuko futbol taldearen denboraldiaren berri bere kapitain ohiak, Gorka Expositok. Futbolearen ohikoak diren 'arrastreak' direla-eta, Deusto K.E.-k hilabete luze itxaron behar izan du maila mantenduko zuen ala ez jakiteko. Itxaronaldia luzea izan da, baina azkenean argitu da Deustuko taldeak beste urte batez jokatu duela Hirugarren Mailan. Deustuarrek 15. postuan bukatu zuten liga, seigarrenak behetik hasita. Urtero hiru talde jaisten dira Hirugarren Mailatik Ohorezko Mailara, eta, hortaz, ez lukete mailaz jaitsi beharko. Baina aurten 2.B mailatik hiru talde euskaldun jaitsi dira, eta horrek eragin du Hirugarren Mailatik seik behera egin behar izatea. Hala ere, bazegoen maila mantentzeko aukera, Hirugarren Mailako lehenengo lauek 2.Bra igotzeko playoffak jokatu behar zituztelako. Alaves B-k bakarrik lortu zuen, baina nahikoa izan zen Deustuko taldearentzat.

## Beisbola

San Inazioko beisbol taldeak amaitu berri du 2018-2019 denboraldia, ondo amaitu ere. Kopan eta ligan bigarrenak izan dira, klubaren 63 urteko ibilbidean lehen aldiz. Uztailaren 13 eta 14an jokatu zuten ligako azken partida San Inazioko jokalariek. Larunbatean 2-13 irabazi zuten Valentziako Astros taldearen aurka, baina igandean 7-5 nagusitu zen etxeko taldea. Tenerifeko Marlinsen atzean, Ohorezko Mailako bigarren postua erdietsi zuten horrela. Gainera, maiatzaren 18 eta 19an Bilbon jokatutako Kopan ere bigarrenak izan ziren, marka garrantzitsua taldearentzat. Bi postu horiek eskuratzeak aukera handiak emango dizkie hurrengo denboraldian Europar jokatzeko. Europako txapelketa jokatzen duten bigarren aldia

izango litzateke. San Inazio Estatuko Beisbol maila gorenean aritzen den euskal talde bakarra da Beisbol Navarrarekin batera.

## Atletismoa

Uztailaren 13 eta 14an Durangon Euskadiko atletismo txapelketa antolatuta zuten eta bertan gure atletek oso jardun txukuna egin zuten. Izan ere, sei izan ziren bertan lortu zituzten dominak. Larunbat arratsaldean, 400 metro hesietan Paul Ubiarnak brontzea eskuratu zuen, nahiz eta lurrera erori. 1.500 metroko proban, aldiz, Araitz Rincon eta Jon Enriquez hirugarren postuan helmugaratu ziren, azken horrek marka pertsonala eginez: 4'00". Igande goizean Paulek eta Araitzek hirugarren postua errepikatu zuten, 110 metro hesietan eta 800 metroko lasterketetan, hurrenez hurren. Azken proba horretan bertan, baina gizonetakoan, Aitor Urdialesek urrea eskuratu zuen minutu bat eta 54 segundoko lasterketarekin. Aipagarria da Araitz elorrietarrak egindako dobletea, oso zaila baita horrelakorik lortzea.

## Arrauna

Sariez betetako denboraldia izaten ari da aurten goa Deustu Arraun Taldean. Nesken taldeak Kaikuko bandera irabazi zuen uztailaren 20an Sestaoko uretan. ETE ligan lehiatzen ari dira eta hirugarren daude sailkapen nagusian, Zumaia eta Hibaikatik apur bat urrun. Ligakoaz gain, bi domina lortu dituzte. Euskadiko Traineren txapelketan zilarrezkoa lortu zuten, Ondarruko uretan bigarren geratu ondoren. Espainako batel txapelketan ere saria eraman zuten etxera, brontzezko domina eskuratu baitzuten Vigon. Gizonek ere ikurrinak ekarri dituzte herrira eta ederto ekin diote 2019ari. Baionako uretan eta Pasaian garaile atera ziren eta egun, bigarren daude ARC1eko sailkapenean, Zarautzetik puntu batera, beraz, denboraldia postu horretan amaituz gero, Eusko Label Ligara igotzeko playofferako txartela lortuko lukete.

Testua: Prest!



# LANAK DATOZ PLAZARA



*Historia luzea du Deustuko Done Petri Plazak. 1924. urteko urriaren 24ko dekretu baten arabera, Deustuko elizatearen desagertzea eta Bilborekiko anexioa 1925. urteko urtarrilaren 1ean emango zen. Halaxe gertatu eta urte horretatik aurrera Bilbok Deustu anexionatu zuen, elizatea desagerraraziz. Datuek diotenaren arabera, 1752. urtean elizatearen lehen udaletxea eraiki zuten gaur egun Done Petri plaza izenez ezaguna den lekuan.*

Urte askotan zehar elkargune garrantzitsua izan da askorentzako plaza hau. Gaur egun errepide zabal batek plaza bitan banatzen duen arren, bere historiak eta bertako sinboloek bizirik diraude, kioskoa eta frontoia dira horren adibide.

Sei ilarako errepidea eraiki zutenean, plazak egingarri asko galdu zituen; kioskoa alde batera eta frontoia bestera geratu ziren. Lehengo frontoia gaur egun Hizkuntza Eskola dagoen tokian zegoen, kioskoaren alboan eta udaletxearen aurrean, baina errepidea eraiki zutenean Udalak beste aldera mugitu zuen, eta errepide bat jarri tarteko.

Jakina da, batez beste 11.500 ibilgailu igarotzen direla egunean sei ilara horietatik eta lehenetsun osoa dutela plazan. Auto pilaketak eguneroko kontu bihurtu dira Deustuko herritarrentzako, gainera, auzoko lasaitasunak aspaldi utzi zion existitzeari, kotxe guzti horiek zarata handia sortzen baitute.

Denborak aurrera egin ahala, zailtasun horiek medio Deustuko lekuri historikoenak herriko erdigune izateari utzi dio. Gaur egun, adibidez, auzoko jaiak Deustuko Euskalduna zubiaren azpian antolatu behar ditu Jai Batzordeak, errepideak plazaren leku handiena okupatzen duelako.

Duela gutxi Bilboko Udalak Deustuko Plaza historikoan egin nahi dituen hobekuntza planak argitaratu zituen txosten batean. Oraindik



lizitazioan dagoen proiektu honen helburuak plazaren erabilera gutxi horiek mantentzea, errepidea inondik inora ukitu gabe plaza nolabait batzea, eta euritik estaliko duen pergola bat eraikitzea dira, dagoeneko euritik estaltzen duen kiosko historikoa eraistearekin batera.

**Testua:**  
Nerea Cubillo

Done Petri Plaza Bizirik dinamika abiatu dute deustuar eragile, elkarte eta auzokide askok. Plazaren hobekuntza horiek alde batera utzi eta benetan honen konponbidea errepidea desbideratzea dela uste dute. Halaber, kioskoa herriaren erabilpenerako elementu bezala mantendu eta frontoi estali baten alde borrokatzea da euren asmoa. Martxan jarri duten sinadura bilketan dagoeneko 13 eragile zein auzo elkarteak batu dituzte, gehiago lortzeko asmoarekin, laster Udalean sinadura guztiak aurkeztuko dituzte, hobekuntza planaren proiektua gelditu eta benetako prozesu parte hartzaile batean erabakitako proiektua sortze aldera.

# berbetan

MAITE SARASOLA ISAZELAI Arekin

Bertsolaria

*“Txapela buruan daukadan*







## bitartean ondo aprobetxatuko dut”

*Txapela buruan etorri da Maite Sarasola Isazelaia (Deustu 2001) Müllerrean jarrita genuen hitzordura. Honako honetan, ordea, ez da entrenatzera hurbildu, irabazi berri duen txapelketaren inguruan hitz egitera baizik. Maiatzaren 25ean Abadiñon izan zen Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala, eta berak eraman zuen etxera Juan Mari Areitio bertsolariak emandako txapela. Jantzi duen lehen deustuarra da, eta agian bilbotarra ere bai.*

### **Lorpen handia da Bizkaiko Eskolarteko txapelduna izatea.**

Oso pozik nago, zoriontsu, urte osoko lanaren emaitza ikusi ahal izan dudalako. Nahiz eta txapela nik bakarrik jantzi dudan, guztion lorpen bat da, eta horregatik oso pozik nago. Txapela buruan daukadan bitartean ondo aprobetxatuko dut.

### **Zer ekarri dizu txapela honek?**

Motibazioa eta lanean jarraitzeko gogo gehiago. Oso gogotsu nago lanean, baina txapelak are eta motibazio handiagoa eman dit. Plazak ere eman dizkit, baina gehien nabarmenduko nukeena poztasuna eta lan egiteko gogoia dira. Hala ere, horrek ez du esan nahi Bizkaiko onena naizenik. Txapela batek ezin du definitu bertsolari ona edo txarra zaren, egun jakin bateko kontua da.

### **Zelako txapelketa izan da Bizkaiko Eskolartekoa?**

Lagunen arteko txapelketa izan da, denok ginelako ezagunak. Intentsitate eta urduritasun handiz bizi izan dut txapelketa osoa.

### **Eta finala?**

Are intentsuagoa izan zen eta are urduria-  
go nengoen. Aurreko egunetan oso gaizki pasatu nuen, urduritasunagatik, baina finala bera oso momentu berezia izan zen. Denok egon ginen oso gustura eta babesa eman genion elkarri. Esango nuke denok irten ginelako pozik eta zapore onarekin.

## ▷ ▷ SAKONEAN



### “Elorriko bertsolariak izan dira nire erreferenteak”

#### Nondik datorkizu bertsozetasuna?

DBHko seigarren mailan Enare Muniategi, Mikel Aiertzagüena eta Ander Anakabe ikusten nituen bertsoan eta bueltak ematen nizkion nire buruari, “nik hori egin nahi dut”, pentsatzen nuen. Familia ez da bertsolaria baina bai bertsozalea, nahiz eta oso sutua ez izan.

#### Zeintzuk izan dira zure erreferenteak bertsolaritzan?

Lehen aipatutako Enare, Ander eta Mikel, Elorri Bertso Eskolakoak. Gaztetatik ikusi ditut Deus-tun bertsoan: Müllerren, txapelketetan, ikastolan... Haiek izan dira nire lehen erreferenteak.

#### Zelakoa izan da zure ibilbidea Elorrin?

Uneoro babestuta sentitu naiz. Nagusien taldera sartu nintzenez oso urduri nengoan, ni baino lau urte nagusiagoak zirenekin aritu behar nuen bertsoan, eta oso galduta nengoan. Denbora aurrera joan ahala, haien babesak eta konfiantza sentitu ditut.

#### Gustura geratu zinen botatako bertsokin?

Orokorrean bai, bertso batzuekin besteekin baino gehiago, baina orokorrean egindako lanarekin pozik geratu nintzen. Bertsolariak bat-bateko kontua da, eta eguna edota gaiak zure alde egon behar dira. Nik egun ona izan nuen eta orokorrean gustura ibili nintzen.

#### Zeintzuk izan ziren irabazteko gakoak?

Egun ona izan nuen eta egokitu zitzaizkidan gaiak erantzuteko egokiak izan ziren. Gainera, giroak eta jendearen babesak asko lagundu ninduen.

#### Zelan ospatu zenuen garaipena?

Txapelketa amaitutakoan bertso-eskolako lagunok Algortara joan ginen, beste bertso saio bat zegoelako han. Zerbeza artean ospatu genuen txapela.

#### Zertan egin duzu hobera azken urtean?

Aurten astean hirutan entrenatzen hasi naiz eta umeei bertso klaseak eman dizkiet bi eskolatan. Horrek azkartasuna eta trebetasuna eman dizkit, asko ikasi dut aurten.

#### Zer lantzea gustatuko litzaizuke hemendik aurrera?

Bertsotan jarraitu nahi dut, ekin eta ekin, eta disfrutatzen. Zerbait hobetzekotan oholza gainean ditudan segurtasuna eta konfiantza landu nahiko nintzuke.

#### Zein da zure hurrengo helmuga?

Helmuga finkorik gabe, bertso-eskolara etortzen jarraitu, ikasten segitu, umeei irakatsi... Gozatzen, ahal dela plazan gozatu jarraitzeko asmoa daukat.

#### Oholtza gainean ikusten duzu zure burua 20 urte barru? Norekin?

Ez dakit egongo naizen edo ez, baina asko gustatuko litzaidake. Edozein bertsolarirekin oso gustura kantatuko nuke, Elorrikoa izan zein ez. Nire belaunaldian oso bertso-

lari onak daude eta oso gustura jarraituko nuke haiekin.

### **Bizkaiko txapelketan Euskal Herriko finalerako txartela eskuratu zenuen. Zelan joan zen Sarako saioa?**

Hau ere lagun arteko saio bat izan zen, gehienok Bertso Udalekueetatik ezagutzen genuelako elkar. Saio berezia izan zen, agian Bizkaikoa baino bereziagoa, Euskal Herriko finala zelako, eta, gainera, Saran.

### **Alde handia dago bi txapelketen artean?**

Dena da oso ezberdina. Alde batetik, 13 bertsolari daudelako, eta bestetik, Iparraldean izanik, Ipar eta Hego Euskal Herria bertsotan elkartzen direlako. Gauza asko konpartitzen ditugu, eta hori oso polita da.

### **Deustura itzulita, zelan dago bertso giroa?**

Bertso-mundua eta zaletasuna gorantz doaz, eta oso pozgarria da. Ikastolan gazte asko ibiltzen dira bertsotan, bertso-eskolan jende berria dago eta helduen taldea berreskuratu da. Aferak eta Bertso Erronda bezalako dinamiken arrakasta ikusita, gazteen artean ere zaletasuna gorantz doala uste dut.

### **Zer dela-eta sortu zen Aferak bertso dinamika?**

Deustura Euskal Herriko hainbat txokotako ikasle asko etorri ohi dira, eta horietako asko bertsolariak dira. Aferak bertsolari gazteei plaza bat emateko sortu genuen, gazteontzako oso zaila izaten delako plazak lortzea. Esango nuke Bertso Erronda ere bide horretatik sortu zela.

### **Zein da bertsolaritzaren garrantzia zure belaunaldian?**

Gaur egun bertsolaritzak nahiko paper garrantzitsua jokatzeko du gure belaunaldian. Hausnartzeko aukera ematen digu, ikasleko aukera, jendea ezagutzeko aukera, Euskal Herria ezagutzeko aukera...

### **Zeintzuk dira bertsolaritzaren erronkak gaur egun?**

Bertsolaritza euskal kulturaren adierazle

da. Erronka nagusia horri eustea eta bai euskara eta bai euskal kultura sustatzea eta bultzatzea dela uste dut.

### **Bakarkakoan oholtzan emakumeek duten presentziaz aritu zinen. Zein da egoera?**

Emakumeoi beti ukatu izan zaigu plaza publikoa, bai bertsolaritzan eta bai beste arlo guztietan. Arlo horretan lan handia egin da, baina oraindik ere lan handia dago egiteke. Adibidez, hor dago Zilekoa, Bizkaiko emakume bertsolarien elkargunea. Horrelako arnasmuneak izatea esker-tzekoa da emakumeontzako.

### **Eskolan emakume eta gizon bertsolariak nahiko parekoak izaten dira, baina mailaz igo ahala emakumeak askoz gutxiago dira.**

Hori gertatu da, adibidez, aurtengo Gipuzkoako txapelketa nagusian. 84 parte-hartzailetik 17 baino ez dira emakumeak, baina bertso-eskoletan erdia izan ohi dira. Horregatik diot lana dagoela egiteko.

### **Botikazar Institutuko Euskara Batzordean ere aritu zara.**

Orain hiru urte sortutako talde bat da, eskoletan euskara sustatzea helburu duena. Aurten hainbat ekintza egin ditugu Korrika eta Euskaraldiarekin. Horrek balio izan du euskaraz bizi nahi duten ikasleak daudela erakusteko, eta ikasle zein irakasleen artean kontzientzia pizteko. Besteen hizkuntza ohituretan eragitea oso lan zaila da, baina gutxienez euskara presente dagoela erakusteko balio izan du.

### **Zelan ikusten duzu euskararen egoera Deustun gazteen artean?**

Euskaraz egiten da, baina gehiago egin daiteke. Gazteok euskaraz naturaltasunez egitea lortu behar dugu.

### **Euskaraldiak berrikuntzarik ekarri al du?**


Kontzientzia pizteko balio izan du. Euskaraz bizitzeko gai garela ikusi dugu eta jauzi hori ematen eta eguneroko ohiturak aldatzen lagundu digu. Institutuan ere eragina izan du, hainbat ohitura hobetu dira eta mantentzea lortu dugu.

**“Txapelak ez du esan nahi Bizkaiko onena naizenik”**

PREST!

## Iritzigile berriak


Irailetik aurrera Iñigo Martínez eta Helene Sarasolak hartuko dute iritzigileen lekukoa. Iñigo Arangoitin bizi da eta hausnarketa filosofikoen bitartez “normaltasuna zalantzan” jartzen saiatuko da datozen hilabeteotan. Filosofia irakaslea da Iñigo, irratian kolaborazio filosofikoetan aritutakoa, *Filosofiaren defentsak* (Erein 2017) liburuaren koordinatzaile izandakoa, Agora Filosofia elkarteko kide eta hainbat kafe filosofikoen antolatzaile. Helene musika zale amorratua da, pianoa jotzen du eta irakurtzea atsegin du. Ameslaria, idealista, feminista, mendizalea eta saltseroa dela esan digu, eta “twitterra kuxkuxeatzea eta posturo sano eta euskalduna” gogoko dituela aitortu digu. Hurrengo uztailera bitartean euren gogoe-tak irakurri ahal izango ditugu.



LITERATURA

## ‘Urtaroak eta zeinuak’

Jon Gerediaga bosgarren poema liburua aurkeztu du. Aurreko lanek bezala, honetan ere natura da gai nagusia eta agerikoena, baina ez izadi basati eta ukigabe gisara, “gizakiaren begiradaren araberako natura humanizatu baizik”. Izenbururik eta atalik gabe datoz Gerediagaeren olerkiak, jarrarian. Lau ardatz nagusi ditu obrak: naturako lau elementuak, gizakiaren begirada, iraupena eta eraldaketaren indarra. Pamiela argitaletxeak argitaratu du Filosofia irakasle eta Arangoitiko bizilagunaren azken liburua.



11/13 SUMARIOA

## Manifestazioa lau auzipetu deustuarren alde

Irailaren 16tik aurrera Auzitegi Nazionalean epaituko dituzte euskal presoaren eskubideen alde lan egiten zuten 47 lagun. Horien artean lau deustuarrek 8, 11 eta 13,5 urteko espetxe eskaria daukate: Naia Zuriarrain, Atxarte Salvador, Eukene Jauregi eta Roberto Noval. Deustun antolatzen hasi dira lau auzipetuei babesa adierazteko. Erriberan eta Deustun argazki erraldoiak egin dituzte, eta Herriko Tabernak elkartasun argazki lehiaketa abiatu udan. Irailaren 13an, manifestazioa egingo dute Deustun, Bilboko manifestazioaren aurreko egunean, eta urrian trikijaialdia egingo dute epaiketaren gastuei aurre egiteko.



LANAK

## Kanaleko pasealekua urte amaiera bitartean zabalduko dute

Ibarrekolandako tunelen irteeratik Elorrietaraino bi kilometro pasealekua egingo dute. 2018ko irailean hasi ziren kanalaren eskuineko ertzean lanean, eta geroztik itxita dago San Inazioko pasealekua. Urte amaiera baino lehen irekita egongo omen da Lutxanara iristen den pasealekuarekin bat egingo duen ibilbidea. Gainera, San Inazio eta Erribera lotuko dituen zubitik gertu plaza bat egingo omen dute, baina hau ikusteko gehiago itxaron beharko dugu. Izan ere, zubia

bukatu bitartean ezingo diote plazako lanei ekin. Elorrietako bihurgunean eskailera itxurako bi plataforma jarriko dituzte, itsasadarrera gerturatu eta eserita edo etzanda egoteko balioko dutenak. Plataformen kokapenari esker gune horretan urak gainezka egitea saihestu nahi dute. Bestalde, itsasadarren alde horretan eraikitzen ari diren hainbat etxebizitza bloketako jabeak 2020an hasi ahalko omen dira bertan bizitzen, Morgan kalea eta Zarandoa etorbidean, hain zuzen.



Urtea: 1969

Txema Luzuriaga

## *Done Petri plaza*

Argazki hau 1969. urtearen ostean egindako da, baina orain plazaren birmoldaketak deustuarroi eka-  
rriko dizkigun arazoez mintzatzeko balio digu. Plaza 1937 eta 1938 urteen artean erdibitu zuten, 60ko  
hamarkadan frontoia desagerrarazi zuten – gero goiko partean berreraiki zuten 80ko hamarkadan –  
eta orain beste birmoldaketa bat egin nahi dute, Deusturentzat garrantzitsuen dena egiteke utzita:  
frontoia estaltzea eta etorbidea lurperatzea. Hori gutxi balitz, honi guztiari kioskoa kendu nahi dutela  
gaineratu behar diogu. Ikusiko dugu zer egingo diguten plazan.

Berriak aldizkariak lagatuko argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

**~IZEKI~**  
**TABERNA**  
 BETI ZIZEKAN SUA  
 argi bat izeki zen zeruan  
 su horidun sugarra ostopo  
 Itzalsuen atzean  
 Ramon & Kaja 26  
 DEUSTU

# YVES ROCHER

FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765  
 Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48  
 H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



**Optica**  
*Avenda*

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:  
 SAN INAZIO 94 475 11 24

**ATXURI**  
**TABERNA**

Luzarra 1  
 Deustu

946 75 40 17

**BREST**

kafetegia

Blas de Otero, 5  
 Tfnoa: 94 447 95 43

**Alonso**  
**Pertsianak**

Plaza Celestino M<sup>a</sup> del Arenal, 12  
 48015 Deustu-Bilbao  
 Tel.: 94 600 14 24  
 alonsoper@euskalnet.net

**Urrunago zertarako?**  
 Deustuko Liburudenda  
 San Pedro Plaza 4

*Yoki Berrri*  
**Taberna**  
*Good vives!*

Luzarra, 6 - Deustu  
 @tokiberritaberna

1924tik Deustun

*Tintoreria*  
**La Flor**

Julio Urquijo 3 - Deustu  
 94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze  
 jantziak...garbitzen ditugu

**artez**  
 euskara zerbitzua

**Probatu**  
**herrizki.eus**

ANDROID APP  
 Google play

Apple App Store

Ramon y Cajal, 8 behea  
 48014 Deustu  
 tel. 94 475 22 33  
 matxintxu@aeknet.net

**Matxintxu**  
 aek ■ euskalategia

Matrikula zaitetz!

**Nailan**  
 Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g  
 48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84  
 nailanparquet@euskalnet.net

**RONDOKO**  
 HORTZ KLINIKA

*Iratxe Jimenez Bobadilla*  
 ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa  
 Ume eta helduak  
 Tratamendu estetikoak eta garbiketa  
 Peridontzia eta protesi kengarriak  
 Ortodontzia

PADI  
 OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO  
**94 475 5932**  
 E.P.S. 425/97

**Bitxidenda**

*Sabin*  
**Erlojudenda**

Rafaela de Ibarra, 6  
 Tfnoa 94 475 63 16

**PERSIANAS**  
**KM**  
**CERRAMIENTOS**  
*Deitu eta Ikusi!!*

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao  
 TEL. 94.447.70.32  
 E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com  
 www.persianaskm.com

**BIDAURRE**  
 elektrizitate eta margo-lanak  
 2daurrelan@gmail.com  
 669 42 76 23

## Zein da jaiak aurrera ateratzeko gakoa?



**Endika**  
**San Inazio**

Jendearen parte hartzea garrantzitsua da. Auzokideak hainbeste kezatu eta kritikatu beharrean gehiago inplikatu beharko lirateke.



**Iker**  
**Ibarrekolanda**

Urte osoko lana, irmotasuna eta pazientzia dira gakoak. Jaiak ez dira 15 egunetan antolatzen.



**Ane**  
**San Inazio**

Auzoaren inplikazioa eta guztion indarra ezinbestekoak izan dira aurtengo jaiak aurrera ateratzeko.



**Jone**  
**San Inazio**

Aurten jaiak mantentzeko gakoa kuadrillen inplikazioa izan da.



**Ainhoa**  
**San Inazio**

Motibazioa oso garrantzitsua da, eta auzoa ez hiltzen uzteko nahia.




**Urtats**  
**San Inazio**

Lan egiteko gogoak dituen jendea eta traba gutxiago behar ditugu. Udalak erraztasun gehiago eman beharko litzuke.



# harkua bete berba



>> ATHLETIC

## KOLDO AGIRRE, IZAR BERRI BAT ZURIGORRIEN ZERUAN

*Uztailaren 3an zendu zen Koldo Agirre, Athleticetako mitoetako bat. Garai loriatsuak ezagutu zituen jokalaria moduan lehenengo eta entrenatzaile gero. Klubaren ezaugarriak hezurramitu eta lau haizetara zabaldu zituen.*

**Testua:** Hektor Ortega **Argazkiak:** Javi Garcia - PREST! 67 (2007ko otsaila) eta Athletic

Koldo Agirre Bidaurrazaga 80 urte bete berritan joan zaigu. Txorierriko semea, Sondikan jaio baitzen 1939an, deustuarretik ere asko zeukan, bizitza erdia Deustuan eman zuen eta. 2007an elkarrizketa zabala egin genion PREST!en (67. zenbakia). Deustuko batzokian elkartu ginen eta han luze eta zabal egin zigun bere kirol jardueraz eta, batez ere, Athleticetz.

Gazterik heldu zen lehenengo ekipora, eta arin heldu zitzaion loria handieneko unea. 18 urteko txotxoa besterik ez zen Athleticekin debutatu zuenean. Agirrek zortzi partida jokatu zituen ekipoa finalera sailkatu orduko. 1958ko final hura

klubaren historian zizelkatu-rik dago. Hamaika baserritarren ekipoa, Di Estefano eta enparauen aurka; eta Koldo gaztea hamaikakoan sartu eta beterranoen pare aritu zen. "Final guztiak zailak dira baina orduko hura itzela izan zen, Europako txapel- dun zen Real Madridi bere zelaian irabazi geniolako", kontatu zigun. Balentria ikaragarria, bere ibilbideko gorengo unea, loria une asko dastatu zituen arren.

1957 eta 1969 bitartean jokatu zuen Athleticen. Zelai- erdiko jokalaria teknikoa eta burutsua zen. "Fielato esaten zidaten, baloi guztiak nire hanketatik pasatzen zirelako. Egun txarra neukanean asko igartzen zen,

baina baita egun ona neukanean ere". Eta onak asko izan ziren. 296 partiduko joku- zituena elastiko zurigorriaz eta orotara Kopako lau final jokatu zituen. Birritan atera zen txapel- dun. Golak ere egi- ten zituen, 64 denetara, eta egun on horietako batean lau egin zizkion Espanyoli 71. eta 84. minutuen artean,

3-0 galtzen zuen Athletic- i garaipea emanez.

Umiltasunez kontatzen zuen Athleticetako aulkira zelan heldu zen: "Ni txiripaz izan nintzen Athleticetako entre- natzaile. Rafa Iriondok utzi zuenean, zuzendaritza bat- zordeak Ingalaterra goitik behera arakatu zuen en-







trenatzaile bila. Alferrik. Orduan Piru Gaintzak presidenteari zera esan zion: 'Lezaman bertan entrenatzaile bikaina daukagu: Koldo'. Horrela hasi nintzen". Hiru urte egin zituen baina 1977koa da zaletuen gomutan betikotu dena. Ekipoak final bi jokatu zituen, UEFAkoa Juventusen aurka eta Kopakoa. Zorigaitzez, biek egin zituen ihes.

Hala ere, entrenatzaile moduan titulu bat eman zion Athletici... Valentziako aulkitik. 1983ko Ligako azken jardunaldian Athleticcek Las Palmasen errez irabazi zuen. Valentzia, bere aldetik, 1-0 gailendu zitzaion Real Madrideri, "eta irabazi genuen entrenamenduetan landutako jokaldi bati esker. Mila bider saiaturako jokaldia zen eta inoiz ez zen ondo atera, gehien behar genuenean ondo irten zen arte", gogoratu zuen. Valentzia salbatu zen eta Athletic... txapeldun!

Azken urteotan Athleticen ibili da peñekiko harremanetan arduradun. Eta hortik ere, klubaren filosofia sutsu defendatu du. "Filosofia aldatuko bagenu, peña barik geldituko ginateke. Oso errota dago". Beti arte, Koldo!

### codesyntax.com *Mendiak APP*

Mendiak APP aplikazioak Euskal Herriko 2.000 gailur nagusien informazioa biltzen du: kokapena, altimetria, mapak... Horrez gain, igotako mendiak markatzeko eta partekatzeo aukera ematen du, eta estatistika pertsonalak ematen dizkio erabiltzaileari. Euskarazko aplikazioen artean arrakasta handiena izan duen aplikazioen artean dago Mendiak. 2016an argitaratu zenetik, 15.000 deskarga inguru izan ditu. Aplikazioaren bertsio berriak argitaratu dute orain, mapa berriekin, dominak lortzeko aukerarekin, eta abar.

### bizibaratzea.eus *Bizi Baratzea*



Izen bereko liburuaren arrakastaren ondotik argitaratu zuen ARGIAK Bizi Baratzea webgunea. Atal bisitatuenean artean 'Asteko lanak' (ilargiaren posizioari erreparatuta baratzean egin beharreko lanen zerrenda biltzen ditu), Jakoba Errekondori galderak egiteko foroa eta Euskal Herriko agenda dira. Gainera, ingurumenari, lehen sektoreari edo lurralari lotutako albisteak, Landarepedia atala (landareen entziklopedia) eta hiztegia, eta eragileentzako plaza ere baditu webguneak. Atal guztiak parte-hartzaileak dira, nahi duenak informazioa partekatzeo. Hilean 50.000 bisita ditu webguneak eta 2.000 lagunek jasotzen dute asteroko laburpen bulletina.

### xerezade.org *Mayi Peloten zientzia fikzioa entzungai*



Euskaraz ipuin futuristak idazten aitzindaria izan zen Mayi Pelot. Bordele ondoko Talençan jaio eta Biarritzen bizi izan zen. Besteak beste, Maiatz elkartearen hastapenetik aritu zen eta aldizkariaren sorreran parte hartu zuen. Bertan ipuin futuristen bi bilduma argitaratu zituen: *Biharko oroitzapenak* (1985) eta *Teleamarauna* (1987). Gure Irratiaren lehen urteetan fikzio emankizun asko kudeatu zituen, eta Euskararen Erakunde Publikoaren Nola erran hiztegia hartu zuen parte. Idazle aitzindaria izan zen, irudimen handiz euskarara gai berriak ekarri zituena. Neologismo ugari ere asmatu zituen, irudikatzen zituen tresna eta tramankuluak izendatzeko. Ana Morales eta Jasone Larrinagak ahotsa jarri diote bere hiru ipuini eta Xerezaderen Artxiboan daude entzungai.

# IBARREKOLANDA “BETI PREST”

*Aurten Etorkizuna Eskaut Taldeko 40. urteurrena eta Ibarrekolandako kristau-elkarteko 50. urteurrena ospatu ditugu. Horretarako, joan den hilabetean, ekainaren 22 eta 23an zehazki, Ibarrekolandako eta Eskaut Taldeko kideak elkartu ginen hainbat ekitze desberdinez beteriko asteburuan.*



**Testua:** Irati Royo Larizgoitia **Argazkiak:** Etorkizuna Eskaut Taldea eta Ibarrekolandako kristau-elkartea

Larunbatean 9:00etan elkartu ginen Etorkizunako haur, begirale, guraso eta taldeko kideak izandakoak mendi txangoa egiteko. Auzotik, Iturritxualde eta Gangurenetik igarota Lezamaraino joan ginen. Irriz, esfortzuz eta gaurko eta atzoko istorioez beteriko irteera izan zen. Gainera, aspaldi ikusten ez genituen lagunak berriz ere ikusteko aukera paregabea izan genuen.

Arratsaldean, 18:00ak aldera, Etorkizunako ikasturteari amaiera emateko ordua heldu zen. Aurtengoa oso urte berezia izan da, aldaketaz, abenturez, istorioz, hausnarketaz eta, batez ere, konpromisoz beteriko urtea. Honegatik guztiagatik, kurtso amaierak ere berezia behar zuen izan. Urtean zehar egindako argazkiak elkarrekin ikusi genituen eta... Kaskondoek eskaut izatearen garrantziaren inguruko bideo labur bat eta guzti egin ziguten! Horren ostean, begirale ohiek sorpresatxo bat prestatu ziguten eta 40 urtetik hona ateratako argazki eta bideoen bilduma bat aurkeztu ziguten. Emozioz, malkoz eta oroitzapenez beteriko momentua izan zen.

Egunarekin amaitzeko parrokiako lorategira irten ginen eta musikaz girotutako merendola egin genuen. Photocall-a, txapak egiteko makina eta argazki gehiago aurkitu genituen bertan!

Larunbateko irrien ondoren, oraindik igandea falta zen. Goiza 12:00etan hasi genuen oso berezia izan zen elizkizun batekin. Bertan adin desberdineko hainbat pertsona elkartu ginen. Gero, 13:00etan, Etorkizuna Taldeak Ibarrekolandan izan duen eraginaren inguruko erakusketa eta aurkezpena egin zigun EHUko irakasle batek.

Azkenik, asteburuarekin amaitzeko, bazkaria bakarrik falta zen. Bakoitzak etxetik eramandakoa guztion artean partekatu eta jan genuen. Gainera, postre erakusketak, dastaketa eta diploma banaketa ere izan genituen. Hori bai aniztasuna!

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkizuegu asteburu berezi honen parte izan zareten guztioi eta egunero Ibarrekolandan eta Etorkizunan laguntzen duzuen danoi. Zuek gabe 40 eta 50 urte hauek ez lirateke posible izango! Beti prest!





barkua bete herba



egin zaitetz bazkide  
asóciate

[www.pabellon6.org](http://www.pabellon6.org)

**P6**  
PABELLÓN N.º 6  
ARTE ESZEN/KOAK



# PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

## HUMUSA ETA NEKAZARI-TORTILLA

*Levante enparantzan dagoen Panpa tabernara gerturatu gara aurtengo uztailean ere. Jai giro betean murgilduta aurkitu dugu Macu, eta tabernako azken berrikuntzak kontatu dizkigu, bai eta bere pintxo arrakastatsuenen sekretuak ere.*

**Zailtasun maila:** erreza

**Egiteko denbora:** momentuan

**Prezioa:** pintxopotean 0,50 euro

gainerako egunetan euro bat

**Berezitasuna:** Eskatu eta unean bertan prestatzen ditu Macuk tortillak, zuk nahi dituzun osagalekin.

Urrian bi urte beteko ditu Macuk Levante plazako arkupeetan duen tabernan. Oraindik hasten ari da, baina hamaika berrikuntza eta pintxo berezi ateratzen ditu egunero barrara. Horietako batzuen sekretuak kontatu dizkigu. "Familia osoarentzako eskaintza" izaten saiatzen da, "gustu guztietarako". Prezioak ere, poltsiko guztietarako jartzen ditu, euro bakarrean pintxo gehienak. Pizza zatiak, albondigak, txistorra, txanpiñoi pikanteak, endibia pistoarekin, humusa... eta arrakastatsuenak, nekazari-tortilla pertsonalizatuak. Gainera, egunero aukera beganoa dauka, "kalitatezkoa eta merkea".

Panpa Bar tabernako Macu



**PANPA BAR**

Oñatiko Unibertsitatearen kalea 15 atzekaldea  
(Levante plazako arkupeak)

**Ordutegia (aldakorra)**

Asteazken 09:00-22:00

Asteburuetan 23:00-24:00

Tel.: 646 196 539



## OSAGAIAK

### Nekazari-tortilla

*Tipuleta*  
*Kalabazina*  
*Piper berdea eta gorria*  
*Patatak*  
*Arrautzak*

### Humusa

*Txitxirio egosiak*  
*Limoi zukua*  
*Tabini saltsa (sesamo txigortua urarekin)*  
*Kuminoa*  
*Gatza*  
*Berakatza*  
*Piperrauts gozoa*  
*Azenarioa*  
*Ogi makilatxoak*

### Nekazari-tortilla momentuan prestatzeko sekretua

Goiz osoa ematen du Macuk kalabazina, patatak, piperrak eta tipula txikitzen. Gero zartagin desberdinetan biguntzen ditu barazkiak, tortilla pertsonalizatuak prestatu ahal izateko. Tabernara sartu eta gogo

edo gustuen arabera, tortillako barazkiak aukeratzen dituzte bezeroek, eta unean bertan prestatzen ditu Macuk. Hiru arrautzako tortillak egiten ditu, txikiak baina lodiak. Osorik zein zatika saltzen ditu.



## Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24  
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako frontoiaren atzean

Ramon y Cajal 23



**Deustuko**  
**Ramon y Cajal kalean**  
**girorik onena!**

**ZURE PINTXO**  
**ONENAK GUREKIN**  
**KONPARTITZEKO**

**Prest?**

**AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN**



# kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



## LAURA FEIJO IGLESIA

*Sortzailea eta bihurria*

### ATERA KALERA!

Beroak gure gorputzeko txoko guztiak bustitzen dituen hile hauetan, beharrezkoa dugu lanean gaudenok kalera atera eta airea hartzea; egoera surrealista dirudien arren, udan, Bilbon, zaila baita arnasa sakon hartzeko lekuak topatzea.

Ez naiz aire girotuak ilea mugiarazten digun lekuaz ari, ez eta urte osoa prestatzen daramagun bidaiaz ere. Kaleaz ari naiz. Kontzertuz, bertso-saioz, txosnaz, dantzaz, antzerkiz, musikaz beteta dagoen kale biziaz. Jendez betetakoaz, hara eta hona joan etorrian gero eta azal beltzaranagoa dakarren jendeaz eta bere bizipenez: "Aizu, badakizu Japonian metroa itxaroteko kola egiten dutela?"; "Bai zera! Ni Italian egon naiz oporretan eta inork ez du autobusa ordaintzen". Kaleak ematen digunaz ari naiz. Horrek egiten baikaitu aberats.

Bada, nik, airea hartzera joan zaitezten gomendatzen dizuet uda sasoi honetan. Bila itzazue zuzeneko musika duten espazioak, edo kale antzerkiak eskaintzen dituzten herriak. Bila itzazue jendez betetako txosnak eta herri bazkariak. Bila itzazue herrialde, kultur eta gizarte berriak, ondoko auzoan bada ere. Bila ezazue gustuko libururen bat, hondartzan irakurtzen diren horietakoa, edota dantzan gau osoa emateko juergak. Sofan botata egotearen kontrako edozer bila ezazue, belardi batean botata egotea bada ere.

Eta atera gaitezen kalera, kalea baita kultura!



## ASIER URKIZA SANCHEZ

*Elorri bertso-eskolako kidea*

### *Doinua: Lurreranpean sar nindaiteke*

#### EHZ-RI

Festival asko Euskal Herrian norbere atseginerako Lekornen jaiotza Irisarriara egin zuen behin eskapo kalitatezko musika eta eztabaidaz ase bapoz behetik gora elkarlanean herritik herriarentzako. Egiten dena nola egiten den inportantea delako.

#### BERRI TXARRA

Ibilbidean traba ugari kritika eta sesio bazter hauetan azkenaldian ausardiak ze prezio! Akatsak akats aurrera egin intuizioak intuizio kantuek ederrak egin nahi hori egin gabe traizio. Bizitza eman pasioari ta bizitzari pasio.



# PreSt! AURRERABIDEAK GORABEHERA, ARRISKU LARRIAN ORAINDIK

Ekaineko zenbakian PREST! aldizkariaren egoera larriaz ohartarazi zintuztegun. Dirulaguntza eta publizitate sarrerak apaldu direla-eta, gure egoera ekonomikoa prekariora da aspalditik. Azken hilabeteotan, gainera, egoera oraindik eta okerrera goa da.

Pasa den hilabetean iragarri bezala, aurtengo dirulaguntza guztiak (Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundua eta Bilboko Udala) atzeratu egin dira, eta jaso arte diru gabe gaude. Hilabete honetan, galdezka ibili arren, ez digute zehaztu noiz helduko diren eta, hortaz, **likidezia arazoaz gain, aurreikuspen falta daukagu oraindik ere**, horrek dakarren guztiarekin: ezin dugula jakin zenbat diru beharko dugun bizirauteko.

Oztopoak oztopo, egoerari aurre egiteko hainbat neurri hartu ditugu, tartean babesle kanpaina aurreratzea eta irakurleei mailleguak eskatzea. Deustuarren erantzuna zabalda izan da eta esker oneko hitzak baino ez ditugu, zuei esker irailera bitartean proiektuari eusteko adina baliabide lortu dugulako. Hala ere, **oso litekeena da arazo urte amaiera arte luzatutzea**, eta horregatik kanpainarekin jarraitu behar dugu nahitaez.

Irakurle guztion babesak ezinbestekoa da, proiektua egonkortu eta indartu nahi ba-

dugu. **PREST! etxean jasotzen duzuenen 14tik batek baino ez du aldizkaria babesten.** Dirulaguntza eta publizitate iturriren guztiz menpekoak gara, eta edozein gorabeherak proiektua kolokan jartzen du.

Egoera oso larria dela-eta, irakurleei berriz eskatu behar dizuegu hilero jasotzen duzuen aldizkaria diruz babestea. Bestela, nekez aterako dugu aurrera PREST! duintasunez, produktua, langileen eta lantaldearen kalterako.

Gaur egungo egoera hil ala bizikoa da eta **larritasun honen aurrean zuen guztion ahalegina eskatzen dizuegu** beste behin ere, hau da, urtean 25 euroko kuota ordaintzea. Guztion ekarpen xumea funtsezkoa da PREST! argitaratzen jarraitzeko. Zuek barik ez dago PREST! eta horregatik zuengana jotzen dugu atzera ere laguntza eske.

Ekarpena egiteko, idatzi **prestharpide@gmail.com** helbidera edo deitu **944 471 042** telefono zenbakira.

Aldez aurretik zure babesak eskertu nahi dizugu irakurlearen zaren aldetik zuk ere PREST! egiten duzulako.

**PREST! aldizkariko lantaldea**

UZTAILAK 24 – 31 JULIO

# SANIKO JAIAK 2019

**Bilbon**  
euskaraz

**B**

**Bilbao**



[www.bilbaoeuskaraz.eu](http://www.bilbaoeuskaraz.eu)